


Esne Bidearen kanpoko exoplaneta baten zantzuak

Lehen aldiz, Esne Bidearen kanpoko exoplaneta bat izan daitekeenaren aztarnak aurkitu dituzte. Orain arte, ia 5.000 exoplaneta aurkitu dira; guztiak, gure galaxiaren barruan. Orain, berriz, Chandra X izpiko teleskopioaren bidez, Saturnoren tamainako planeta baten zantzuak ikusi dituzte Messier 51 galaxian, Esne Bidetik 28 milioi argi-urtera.

Astrofisikariak sistema bitarretan X izpiak haute-matean oinarritu dira. Sistema horiek zulo beltz bat edo neutroi-izar bat izaten dute, beste izar bat orbitatzen, eta haien gertuko materiak igortzen duen energia X izpietan ikus daiteke. X izpiak sortzen dituen eremua txikia denez, planeta batek erraz estal dezake aurretik igarotzean, eta, beraz, X izpien jaitsiera nabarmena eragiten du. Horrela aurkitu dute exoplaneta hori.

Hiru ordu inguru iraun zuen igarotzeak, eta X izpien emisioa zerera jaitsi zen. Informazio horretan eta beste batzuetan oinarrituta, astronomoek uste dute balizko exoplaneta Saturnoren tamainakoa izango litzatekeela.

Metodo hori exoplaneta gehiago aurkitzeko baliagarria izan daitekeela uste dute. Hala ere, beren aurkikuntza berresteko datu gehiago behar dituztela ohartarazi dute astrofisikariek. ●



Messier 51 galaxia, X izpien bidez. ARG.: NASA/CXC/SAO/R. DiStefano, *et al.*

OMEk malariaren aurkako lehen txertoa gomendatu du haurrentzat

Urtean, 5 urtetik beherako 260.000 haur hiltzen dira malariak jota Saharaz hegoaldeko Afrikan. Heriotza horiek eragotz ditzakeen txerto bat baimendu berri du Osasunaren Mundu Erakundeak. "Une historikotzat" jo du Tedros Adhanom Ghebreyesus OMEren zuzendari nagusiak.



Malariaren aurkako haurren txertaketa pilotuaren une bat, Ghanan. ARG.: WHO/Fanjan Combrink

RTS,S txertoa da OMEk baimendutakoa, eta, 2019tik, Ghanako, Kenyako eta Malawiko 800.000 haurrek jaso dute txertaketa pilotu batean. Hartan, frogatu dute txertaketa egingarria dela, segurua, eraginkorra (% 30 gutxitzen du malaria larria izateko arriskua), ez dituela beste esku-hartze sanitarioak oztopatzen, eta onura kostuaren gainetik dagoela.

RTS,S Plasmodium falciparum bizkarroiaren aurkako da, eta haren proteina batzuk daramatza, haiekiko erreakzio immunitarioa eragiteko. 1980ko hamarkadaren amaieran sortu zuten, SmithKline Beecham Biologicals konpainiarako lan egiten zuten ikertzaileek, eta EMA Sendagaien Europako Agentziak 2015ean baimendu zuen. Malariaren aurka baimendutako lehen txertoa bilakatu zen. Orain, proba pilotuaren ondoren, OMEk haurrentzat gomendatu du. ●